2020-2021 URTEKO PLANA

La Salle
Bilbo Sektorea

La Salle
Bilbo Sektorea
Sector Bilbao

BILBO SEKTOREKO SALLETAR HEZKUNTZA SAREA

ARLEP BARRUTIA

BILBO SEKTOREKO URTEKO PLANA

2020-2021 IKASTURTEA

AURKIBIDEA

BILBO SEKTOREKO URTEKO PLANA: SARRERA

I. BILBO SEKTOREKO HEZKUNTZA SAREA

II. BILBO SEKTOREKO HEZKUNTZA SAREAREN ANIMAZIO TALDEAREN EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA

1. BILBO SEKTOREKO ORGANIGRAMA
2. ANIMAZIO TALDEAREN FUNTZIOAK
3. GARAPEN TALDEA
4. SEKTOREKO ANIMAZIO TALDEAREN FUNTZIONAMENDU DINAMIKA
5. AKONPAINAMENDUA
6. HEZKUNTZA ZENTROEN ZUZENDARIEN TALDEA

III. BILBO SEKTOREKO KONTSEILUA, TALDE ETA LANTALDEAK

IV. SEKTOREKO EGUTEGIA

V. BILBO SEKTOREKO SALLETAR HEZKUNTZA MISIOAREN URTEKO PLANA

1. PERTSONAK
2. HEZKUNTZA PROIEKTUA
3. ANTOLAKETA

“Egun batzuetan, sei gauza gertaezin ere sinestera iritsi naiz gosaldu aurretik.”.

Erregina Zuria - Alizia ispiluan zehar



Antzeko zerbait pentsatu izan dut uda honetako egun askotan, eta aurreko ikasturtean ere horixe bera gertatu zitzaidan. Nekez imajina zezakeen gutako inork orain bizitzen ari garena biziko genuenik. Gerta daitezkeen egoera desberdinak aurreikustera ohitu gara eta badakigu, hala ere, egiaz gertatuko dena oraindik aurreikusi gabea izan dezakegula.

Aurreko ikasturteko goiburuak eskaera garbia egiten zigun: “Imajinatu”. Eta horrelaxe ekin genion ikasturteari, ilusioz beterik, salletarren goiburuko mezu indartsuak bultzatuta: “Salletarrak, gure eskuetan gauza handiak egitea”. Eta lortu dugu, bai, mezu horrek eskatzen ziguna betetzea, ganorazko erantzun bat eman baitiogu egoera oso ezohizko eta konplexu honi. Erantzun sendo hori emateko, ezinbesteko izan ditugu pertsona bakoitzaren eta elkartearen erantzukizuna, enpatia, solidaritatea, konpromisoa eta Aita Amaren deiari zerbitzu emateko bokazioa.

Ez dira gutxi izan hausnartzeko, bereizteko, erabakitzeko eta aritzeko uneak. Erantzukizunak deitu izan gaitu aurreko ikasturtean eta dei berari erantzun behar diogu datorkigun honetan ere. Horixe gogorarazten digu datorren 2020-2021 ikasturte honetako goiburuak: “Eta zuk, zer aukeratzen duzu?”. Galdera mamitsua da garai zailotan, baina gure misioak erantzun irmo hau ematera garamatza: pertsona guzti-guztiak aukeratzen ditugu; gure haur, nerabe eta gazteak ongizatean eta beren izatearen dimentsio guztietan haztea; helburu hori lortzeko gorputz eta arima saiatzea eta, erronka horretan, gure onena ematea. Gure ikasgelak, pasilloak, kaperak eta elkarteak beteko dituzten “kimu” horiek haztea nahi dugu, onean haztea. Hastear den ikasturte honetan, erantzukizunez jokatzera deitzen gaitu salletarren goiburuak ere: “Zu mirariaren partaide zara. Gure ikuskera, gure grina, gure etorkizuna”. Jainkoa zugan da eta zu harengan, maite gaitu eta maitatzeko dohaina eman digu. Zu eta ni, gu guztiok, Jainko Maitasunaren mirariaren partaide gara. Baina, nola egingo dugu hori guztia? Proegaren aurtengo goiburuak esaten digu: “Etorkizuna eraikitzen dugu, hezkuntza gure tresna”. Hezitzaile garela gogorarazten digu mezu horrek, eta elkarrekin, elkartean lan egitea dugula bokazio. Ez al da zoragarria asmo handi hori betetzera deituak izatea?

Malgutasun handiz jokatu behar dugu bizitzaz eta bizitzan elkabarbanatzen dugunaz gozatzen jarraitzeko. Aurreko ikasturtean abiatu zen ARLEP Barrutiko III. Kapitulua, baina aurtengo abendura atzeratu behar izan da haren

amaierako saioa, 2021eko azaroan egingo da nazioarteko III. SHM asanblada, eta 2022ko maiatzean Kapitulu Orokorra… Ez dago presarik, guztiok iristea da kontuan, bidean inor galdu gabe.

Hauek dira ikasturte honetako lehentasun batzuk:

-Gure obretako pertsonen Harrera, Segimendu eta Akonpainamendurako Barruti Gida osorik zabaltzea. Erronka handi horrek barrutiko goiburuak eta salletarrenak osatzen duten galdera- erantzuna dakarkigute gogora: Eta zuk, zer aukeratzen duzu? Mirariaren partaide zara! Ikasturte honetan, gure ikastetxeek eta obrek tokiko identitate arduradun bana izango dute, eta arduradun horrek, zuzendaritza taldeekin eta Sektoreko Formazio eta Salletar Identitaterako delegatu Eusebio Villaescusarekin batera, salletar proiektuaren arlo funtsezko horrek bere egitekoa betetzen jarraituko duela ziurtatuko du, hau da, gure bokazioaren zentzua eta gure proiektu komunean dugun partaidetza sentimendua indartuko dituela.

SALLETAR HORI: Zu mirariaren partaide zara
Gure ikuskera. Gure grina. Gure etorkizuna.

-Ikasturte honetan, ARLEP Estatutuak adierazten duen pertsona kopurura egokituko dugu Sektoreko Animazio Taldea, misioaren eta hura betetzen duten pertsonen zerbitzura jarraitzeko; beraz, osaera hau izango du: Sareko zuzendaritza, Hezkuntza Misiorako delegatuak, Pastoraltza Misioa, Formazioa eta Salletar Identitatea eta Gerentzia. Horrez gainera, III. BSHMA eta Bilbo sektoreko I. Forotik eratorrita, Animazio Planaren Arloak Garatzeko Talde bat osatuko dugu, Bilbo Sektoreko Animazio Taldearen ardurapean. Sektorean ditugun talde hauek osatuko dute Garapen Taldea (kide berri batzuk sartuko dira talde horietan): pertsonen taldeak (Juanjo Otegi anaia sartuko da); pastoraltza taldeak (Mikel García anaia sartuko da); pedagogia taldeak (aurreko ITB talde eragiletik jarraitzen dutenek, Sonia Redondo, arduradun gisa, Jesús Perigot, Begoña Carazo, Pepo Salvador, Gorka Eizaguirre, eta kide berriek, María García eta Estela Rodríguez, osatuko dute); eta zuzendaritza-kudeaketa taldeak.

-Irailean, pertsona bat aukeratuko dugu Zaragozan haur eta familia zaurgarriei arreta emateko proiektua abiatzeko. Era berean, formazioa emango diegu aukeratuko dugun profesional horri laguntzeko prest dauden pertsonei, laguntza talde bat osatzeko. Proiektua antolatzen, harremanak sortzen eta gainerako lanek egiten hasiko gara. Ikasturtea amaitu baino lehen proiektuko jarduera batzuk abiatzea da gure asmoa.

-Ikaskuntza Testuinguru Berriaren ezarpen bidean, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 4-6 mailak jarriko dira indarrean datorren ikasturte honetan. Aurreko ikasturtetik lantalde bat ari da DBH prestatzen eta beste hiru talde sortu dira, oinarrizko Lanbide Heziketa, Heziketa Zikloak eta Batxilergoa prestatzeko. Gure sektoretik, La Salle Berrozpeko Manu Agirre lanaldi osoan arituko da Heziketa Zikloen taldean; horrez gainera, aholkulari eta diseinu taldearen eskaerapean, lanean arituko dira La Salle Berrozpeko Xabier Garin oinarrizko Lanbide Heziketako taldean, eta Irungo La Salleko Lupe Rocha Batxilergoko taldean.

Ikaskuntza Testuinguru Berria La Salle

Oraindik ez dakigu nolakoa izango den datorkigun ikasturtea, ez dakigu bilerak nahiz saioak aurrez aurre edo bideokonferentziaz egin beharko ditugun, zenbat egunetan izango ditugun

ikasle guztiak ikasgeletan… Egoera berri honetan ziurtasunik ez dugunez, beste era batera erantzuten ikasi behar dugu, eta horretan ari gara. Hala ere, argi daukagu gure haur, nerabe eta gazteei begiratzeko deia, Jainkoak eman digun haienganako misioa, eta gogoz lan egingo dugu haiek zaintzeko, babesteko eta, hezkuntzaren bidez, ikasleek “jakintza eskuratzeko”, “egiten ikasteko” eta, batik bat, “izaten ikasteko”. Zuzendariek eta zuzendaritza taldeek hurbil izango gaituzte, eta haiek ikastetxe eta obretako pertsonen ondoan izango dira. Eta, horretan, enpatiaren eta solidaritatearen bidean sakontzeko deia berritu nahi dugu, izan gaitezen egoera zailak bizitzen ari diren pertsonen ondoan, haien zama arintzen saiatzeko.

Gurekin nahi zaitugu bidean, pertsona guztion talentua eta ondarea itzelak baitira elkartu eta besteen zerbitzura jartzen ditugunean. Hori “aukeratzen” dugu datorkigun ikasturterako, “mirariaren partaide” sentitzen baikara. Jainkoak agindua dugu misio hau eta guri dagokigu, bere “enbaxadoreoi”, hura betetzea.

Bilbo Sektoreko Animazio Taldeko kideok maitasunez agurtzen zaituztegu eta onena opa dizuegu hastear dugun ikasturtean.

Itziar Muniozguren Colindres

La Salle Bilbo Sektoreko hezkuntza sareko zuzendaria

I. BILBO SEKTOREKO HEZKUNTZA SAREA 2020-2021 IKASTURTEA

1. ARLEP BARRUTIA

ARLEP Barrutia (antzinako Andaluzia, Bilbo, Katalunia, ARLEPeko Zentrala, Valentzia-Palma eta Valladolid Barrutiek azken hamarkadan egindako bateratze prozesuaren ondorioa dena) osagarriak diren bi saretan antolatzen da eta bi sareak elkarren arteko lotura estuaz uztartuta:

- Salletar Elkarteen Sarea: Anaien elkarteak, Asoziatuen elkarteak, Anaiak – Asoziatuak eta beste salletarrak osaturiko elkarteak, eta beste nahitako salletar elkarteak. Sare hau 15 "Elkarte zonaldetan" banatuta dago.



- Salletar Hezkuntza Sarea, sektoretan banatuta dagoena:
    - 1 Sektorea - ANDALUZIA: Andaluzia - Melilla.
    - 2 Sektorea - BILBO: Euskadi –Errioxa - Aragoi (Zaragoza).
    - 3 Sektorea - KATALUNIA: Katalunia.
    - 4 Sektorea - MADRIL: Kanariar Uharteak - Gaztela-Mantxa- Extremadura -Madril.
    - 5 Sektorea - VALENTZIA-PALMA: Balear Uharteak -Valentzia erkidegoa -Aragoi (Teruel).
    - 6 Sektorea - VALLADOLID: Asturias - Kantabria -Gaztela eta Leon -Galizia - Portugal.

Bilbo sektorearen barruan honako hezkuntza Zentruak daude:

Bizkaia	Gipuzkoa	Errioxa	Zaragoza
La Salle Bilbao	La Salle Donostia	La Salle La Estrella	La Salle Montemolín
Begoñako Andra Mari	Irungo La Salle	La Salle El Pilar	La Salle Santo Ángel
Elkarbanatuz	La Salle Berrozpe		La Salle Gran Vía
Artizar	La Salle San Luis		
	La Salle Eibar		
	La Salle Beasain		
	La Salle Zarautz		
	La Salle Zumárraga		
	La Salle Egoitza		

Barrutiko SHM Asanbladak onartu zituen helburuak eta ekintza-ildoak betetzeko, PROEGA Fundazioa 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera Bilbo Sektoreko Hezkuntza Sarean sartzea erabaki zen.

2. ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

Barrutiaren antolaketa eta funtzionamendua ondorengo idazkietan eta erakunde hauek hartutako erabakietan arautzen da: Zuzenbide Kanonikoa, Araudia, Kapitulu Orokorraren proposamenak eta Barrutiko Kapituluak eta Salletar Hezkuntza Misiorako Asanbladak (nazioartekoa, eskualdekoa eta Barrutikoa) onartutako proposamenak

Horien arabera, Barrutiko Kapituluak Barrutiko egituraketa, gobernua eta antolaketa zehaztu egin ditu bere oinarrizko lerroetan. Salletar Hezkuntza Misiorako Asanbladaren azterketan eta proposamenetan oinarritzen da Hezkuntza Sarearekin zerikusia dituen gai guztian eta Sare honen eta Elkarte Sarearen arteko harremanetan. Irizpide honen arabera zehaztu ditu:

- Salletar Elkarteen Sarea osatzen dituzte Elkarte Zonaldeak eta Salletar Hezkuntza Sarea osatzen duten Sektoreak; baita beren antolaketa, funtzionamendua, elkarren arteko erlazioa eta koordinazioa ere.

- Barruti mailari dagozkion eskumenak eta Elkarte Zonaldeei eta Hezkuntza Sektoreei dagozkienak. Barrutiko gobernu organoei dagozkion eskumenak eta, irizpide subsidiarioak erabiliz, Elkarte Zonaldeen eta Hezkuntza Obren Sektoreen animazio organoei dagozkionak.

- Eremu ezberdinetan hartzen diren erabakietako parte-hartze irizpideak : Barruti mailan, Elkarte Zonalde mailan eta Hezkuntza Obren Sektore mailan.

Hezkuntza Sarearekin zerikusia duten gaietan, Barrutiko gobernu-organoak honako hauek dira:

- **Barrutiko Salletar Hezkuntza Misiorako Asanblada (BSHMA) :**
    - Misioarekin erlazionatutako gaietan, Barrutirako gogoeta, helburu eta ekintzabideak hartzeko, Salletar eta Anaien parte-hartze eta ordezkaritzaren organorik gorena da.
    - Salletar Hezkuntza Misiorako Nazioarteko Asanbladaren eta Europa – Mediterraneo Eskualdeko Asanbladaren orientabide eta proposamenak kontutan hartzen ditu. Kontutan ere hartzen ditu Elkarte Zonaldeetatik eta Hezkuntza Sektoretatik etortzen diren proposamen eta ikuspuntuak.

- Salletar Hezkuntza Misiorako Asanbladan hartutako erabakiak baliotasuna hartzen dute Barrutiko Kapituluak aintzat hartzen dituenean eta, Kapitulu berak eskatuta, Anai Buru Orokorraren eta bere Kontseiluaren baieztapena dutenean.

- Hiru edo lau urtetan behin deitzen da ohizko Asanblada.

- **Barrutiko Salletar Hezkuntza Misiorako Kontseilua (BSHMK)**

  - Barrutiko Salletar Hezkuntza Sareari dagokionari buruz eta Barrutiko Salletar Hezkuntza Misiorako Asanbladaren orientabide eta proposamenak aurrera eramateko Anai Ikuslari Titularraren organo aholkularia da

  - Salletar Hezkuntza Misiorako Kontseiluak Misiorako Asanbladak onartutako proposamenak garatuko dituen Barrutiko Animazio Plana baiesten du

  - Hiruhilekoan behin biltzen da, ohizko Kontseilua.

- **Anai Ikuslari Titularra:** Barrutiko gorengo arduradun eta animatzailea da eta Barrutiko batasun eta bizitasunaren bermatzailea. Barrutiko zein Sektoreetako Salletar Hezkuntza Sareko lehendakaria da. Barrutiko Sarearen Zuzendariarekin partekatzen ditu bere erantzukizunak Hezkuntza Sarea animatzerakoan.

Sektoreko gobernu eta kudeaketa organoek bere gain hartzen dute Barrutiko Salletar Hezkuntza Misiorako planteamendu instituzionalen esparru-markoa Sektoreko errealitatean garatu eta ezartzeko. Hauek dira organo horiek:

- **Sektoreko Salletar Hezkuntza Misiorako Asanblada edo Foroa (SSHMA):**

  - Anaien eta Salletarren parte-hartzearen eta ordezkaritzaren organoa da eta bertan, Misioarekin zerikusia duten gaiak eta Sektorean aurrera eramango diren gogoeta, helburu eta ekintzabideak baietsiko dira. Salletarren arteko Misioarekiko batasuna eta elkartasuna sustatzen du.

- **Sektoreko Salletar Hezkuntza Misiorako Kontseilua (SSHMK):**

  - Sektoreko Hezkuntza Obren Sareko Zuzendariaren organo aholkularia da. Barrutiko eta Sektoreko Salletar Hezkuntza Misiorako Asanbladen orientabide eta proposamenak sustatzen ditu.

  - Hiruhilekoan behin biltzen da gutxienez.

- **Sektoreko Hezkuntza Sareko Zuzendaria:**

  - Barrutitik zein Sektoreko Misiorako Kontseilutik datozen erabakiekiko funtzio betearazlea hartzen du bere gain.

  - Sektoreko Animazioa Taldearen buru da.

3. SALLETAR HEZKUNTZA MISIORAKO KONTSEILUA

3.1. MISIOA

Sektoreko Hezkuntza Sareko Zuzendariaren organo aholkularia da

3.2. FUNTZIOAK

Sektoreko Hezkuntza Sareko Zuzendaria aholkatzen du gai hauetan:

- Barrutiko zein Sektoreko Hezkuntza Misiorako Asanbladetatik datozen orientabide eta proposamenak garatzerakoan:
    - Identitatearekin zerikusia duten gaiak
    - Asoziazioa eta Misio partekatua
    - Hezkuntza arloan
    - Ebanjelizazioa
    - Behartsuekiko hezkuntza zerbitzuan
    - Salletar prestakuntza
- Kristau Eskoletako Anaiak titularrak diren Sektoreko Hezkuntza Zentroen kudeaketa ekonomikoa.
- Zuzendariaren eta Zuzendaritza Taldekideen proposamen eta izendapenak egiteko prozesuak, Barne Arautegia eta legezko arautegia errespetatuz.
- Sektoreko Animazio Plana

3.3. KONTSEILUKIDEAK

Sektoreko Hezkuntza Sareko Zuzendariari (Itziar Muniozguren) dagokio Kontseilua deitzea eta mahaiburu izatea. Barrutiko Sareko Lehendakariak edo Zuzendariak parte hartzen dutenean haiek izango dira mahaiburu.

Kontseilariak:

Jesus Perigot	*Eskubide osoko kide*
Eusebio Villaescusa	*Eskubide osoko kide*
Fernando Casas	*Eskubide osoko kide*
Burgo Gil	*Aukeratua*
Angel Uche	*Aukeratua*
Mikel García	*Aukeratua*
Luken San Sebastián	*Aukeratua*
Maite Pardina	*Aukeratua*
Borja Doval	*Aukeratua*
Beatriz Abadías	*Izendatua*
Inge Irazustabarrena	*Izendatua*

II- BILBO SEKTOREKO HEZKUNTZA SAREAREN ANIMAZIO TALDEAREN EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA

2020-2021 IKASTURTEA

SSHMK	Sektoreko Salletar Hezkuntza Misiorako Kontseilua
SAT	Bilbo Sektoreko Hezkuntza Sareko Animazio Taldea
BSHMA	Barrutiko Salletar Hezkuntza Misiorako Asanblada
SSHMA	Sektoreko Salletar Hezkuntza Misiorako Asanblada
SUAP	Sektoreko Urteko Animazio Plana
HZKP	Hezkuntza Zentroaren Kudeaketa Plana
ITB	Ikaskuntzarako Testuinguru Berria
ZT	Zuzendaritza-taldea

1. BILBO SEKTOREKO ORGANIGRAMA



Bilbo Sektoreko Hezkuntza Sareko Animazio Taldea (SAT) honako pertsona hauetaz osaturik dago 2020-2021 ikasturterako:

- Itziar Muniozguren And.: Sarearen Zuzendaria eta Hezkuntza Misiorako Delegatua
- Fernando Casas Jn.: Sektoreko Hezkuntza Sareko Gerentea
- Anai Jesus Perigot: Pastoral Misiorako Delegatua.
- Eusebio Villaescusa Jn.: Formazio eta Salletar identitaterako Delegatua

2. ANIMAZIO TALDEAREN FUNTZIOAK

ARLEP Barrutiko Estatutuetan azaltzen denaren arabera, SAT-ari ondorengo hau dagokio:

- Salletar Hezkuntza Misioari buruzko Instituzioaren planteamenduen marko orokorra eta Salletar Hezkuntza Sarea osatzen duten Obren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituzten irizpideak proposatu, garatu eta ezartzea Sektoreko errealitatean.

- Sektoreko Hezkuntza Zentroetan animazio eta formazio prozesu eta ekimenak sustatu eta koordinatu Animazio esparru ezberdinetan

- Kristau Eskoletako Anaiak titularrak diren Zentroetan kudeaketa ekonomiko eta administratiboa koordinatu eta Sareko Zentroentzat ezarriko diren funtzionamendu irizpide ekonomiko, laboral eta administratiboak beste Zentroetan ere bete egiten direla bermatu.

Estatutuen definizio hau ondorengo eginkizunetan zehazten da:

- Barrutiko zein Sektoreko Salletar Hezkuntza Misiorako Asanbladetan (BSHMA – SSHMA) onetsiko diren helburu eta ekintza lerroak garatu. Horretarako, Sektoreko Animazio Taldeak, Sektoreko Urteko Animazio Egitaraua landu, garatu, ebaluatu eta egokitu egiten du.

- Urteko Animazio Planean aurreikusitakoaren arabera, Hezkuntza Zentro bakoitzaren Urteko Kudeaketa Plana lagundu, koordinatu, berrikusi, onartu, ebaluatu eta egokitu egiten du.

- Sareko irizpide bateratuak oinarritzat hartuta, hezkuntza Zentroen esparru ezberdinen funtzionamendua koordinatu.

- Hezkuntza Zentroen Zuzendaritza-taldeak eta gainerako pertsonala lagundu bere betebeharretan.

Oro har, Sektoreko Animazio taldearen zeregina Sektoreko Hezkuntza Zentroen kudeaketa eta koordinazioa da.

3. GARAPEN TALDEA

Sektoreko Animazio taldearen bokazioa erantzukizunak elkar partekatzen diren lantalde bat bezala aritzea da. Une honetan funtsezkoa da aspektu hau gure hezkuntza Zentroen eginbehar guztiak elkarrekin erlazionatuta baitaude.

Sektorean Misioa garatzeko SATak hainbat talde ditu, eta horiek, batera, Garapen Taldea deitzen duguna osatzen dute. Sektorerako finkatutako estrategia garatzeaz arduratzen den taldea da, Urteko Planean jasotako ekintzen jarraipena eginez.

Garapen Taldea osatzen duten taldeak SATen menpe daude eta horien erantzukizun-eremuak honako hauek dira:

3.1. PERTSONAK TALDEA

Hezkuntza Zentroetako langileen eta aisialdiko boluntarioen formazio instituzionalaren plana diseinatu, koordinatu eta dinamizatu egiten du. Pertsonen kudeaketa errazten dituzten prozesuaz ere arduratzen da.

Asoziazio bokazioa suspertzea eta bultzatzea helburu dituzten ekintzak koordinatu eta dinamizatu egiten ditu. Asoziazio prozesuen diseinua eta segimendua ere egiten ditu.

Hezkuntza Zentroetako hezitzaileen elkarteak suspertu, koordinatu eta segimendua egiten du.

Talde hau, Eusebio Villaescusak, Formazio eta Salletar Identitaterako Delegatuak, koordinatzen du eta talde-lanean aritzen da:

- José Ángel Mugica
- José Mari Calvo
- Juanjo Otegi

3.2. PASTORAL TALDEA

Bilbo Sektorearen Hezkuntza Sareko obren pastoral koordinazioaz eta zuzendaritzaz arduratzen da, haren arlo guztiak dinamizatzen ditu eta ITB garatzen du bere lana Pedagogia Taldearekin koordinatuta.

Pastoral Misioko delegatu Jesús Perigot da arduraduna, eta talde-lanean aritzen da:

- José Ángel Mugica
- José Mari Calvo

- Mikel Garcia

3.3. PEDAGOGIA TALDEA

Bilbo Sektoreko Hezkuntza Sarea osatzen duten Zentroen koordinazio eta zuzendaritza pedagogiko hartzen ditu bere gain, bereziki ITBaren hedapenari buruzko guztia.

Sonia Redondok, Sektoreko ITB Arduradunak, koordinatzen du talde hau, eta talde-lanean aritzen da:

- Jesús Perigot, Pastoral Misioko delegatua
- Begoña Carazo
- Gorka Eizagirre
- Pepo Salvador
- Estela Rodríguez
- María García
-

3.4. KUDEAKETA-ZUZENDARITZA TALDEA

Sareko Hezkuntza Zentroen giza baliabide eta bestelako baliabideen kudeaketaren aspektu guztiak zuzendu eta koordinatu egiten ditu, baita Zentroen zuzendaritza lanak ere. Arlo honen barruan honako alderdi hauek daude: lidergoa, zuzendaritza ekonomiko-administratiboa, pertsonen kudeaketa, lan harremanak, hornitzaileen kudeaketa, IKT-en koordinazioa, lege-aholkularitza eta komunikazioa.

Sareko Zuzendariak, Itziar Muniozgurenek, eta Hezkuntza Sarearen Gerenteak, Fernando Casasek, osatzen dute talde hau.

Talde honetan, gainera, Hezkuntza Sareko Egoitzako langileak aritzen dira arloko zereginak betetzen eta zerbitzuak ematen.

4. SEKTOREKO ANIMAZIO TALDEAREN FUNTZIONAMENDU DINAMIKA

Sektoreko Animazio Taldearen oinarrizko lana eta betebeharra da Urteko Animazio Plana eta horren zehaztapenak diren Hezkuntza Zentro bakoitzaren Urteko Kudeaketa Plana. Honi erantzun egokia emateko, kudeaketa zikloa diseinatu egin dugu eta ziur gaude lagungarri izango dela bai Animazio taldearentzat baita Obren Zuzendari-taldeentzat ere, erantzunik egokiena eman diezaiogun gure Misioari eta Barrutiko zein Sektoreko Asanbladen erronkei.



- **Sektoreko Animazio Planaren lanketa:** Animazio Taldeak lantzen du Sektoreko Urteko Animazio Plana ondorengo hauek kontutan hartuz:
    - Barrutiko zein Sektoreko Hezkuntza Misiorako Asanbladen edota Foroaren erronka, helburu eta ekintzabideak.
    - Barrutiko zein Sektoreko Misiorako Kontseiluetatik sortutako irizpideak.
    - Barrutiko Animazio Plana
    - Sektoreko aurreko ikasturteko Animazio Planaren ebaluazioa.
    - Hezkuntza Zentroen ebaluazioa.
- **Hezkuntza Zentro bakoitzaren Urteko Kudeaketa Planaren lanketa**: Zuzendaritza taldeak, Sektoreko Animazio Taldearekin, Urteko Kudeaketa Plana lantzen du ondorengo hauek kontutan hartuz:
    - Sektoreko Urteko Animazio Plana
    - Ebaluazio Instituzionalaren emaitzak
    - Bere plan estrategikoa

  Horretaz gain, Urteko Gestio Planean, aldian-aldian, Zonaldeko Arduradunarekin berrikusi eta ebaluatu egingo diren ekintza eta helburuak jasoko dira.
- **Animazio eta Kudeaketa Planen ebaluazioa**: Sektoreko Animazio Taldeak Urteko Animazio Plana berrikusi, ebaluatu eta egokitu egingo du abenduan, martxoan eta maiatzan. Horrekin batera Zentroen Kudeaketa Plana berrikusi eta ebaluatu egingo dira Sektoreko Animazio Taldeak egingo duten segimenduaren bidez. Gonbidatu egiten zaio Obra bakoitzari garai berdinetan egin dezaten beren Gestio Planen berrikusketa.

5. AKONPAINAMENDUA

Arloen arteko hurbiltasuna eta akonpainamendu berariazkoa indartzeko xedea hartuta, Animazio Taldeak Garapen Taldea osatzen duten talde bakoitzaren bitartez, beren erantzukizun-eskumenen barruan laguntza, jarraipena eta ebaluazioa egiten du.

6. HEZKUNTZA ZENTROEN ZUZENDARIEN TALDEA

Honako hauek lantzen dira Zentroen zuzendariekin:

- Sare-kontzientzia handiagoa garatu elkarrekin egindako lanen bidez.
- Zonaldeka sor daitezken sinergiak baliatu hainbat erronkari erantzun ahal izateko.
- Erantzunkidetasun handiagoa lortu zuzendarien artean, Sektorean aurre egingo diegun gogoeta, irizpide eta ekintzetan.

Helburu hauek lortzeko bi motatako bilera/gogoeta/ekintza esparru ezberdinak mantentzen dira:

- Sektorekoa: Esparru honetan, 2020-2021 ikasturterako, honako bilera hauek planteatu dira:
    - Presentzialak:

    - Irailean, egun bat: ikasturte hasierako oharrak, berriak eta abar eta sor daiteken beste hainbat gai.
    - Otsailean, bi egun: formazioa, lehen hiruhilekoaren berrikuspena eta elkarrekin lantzeko gaiak.
    - Ekainean, bi egunetakoa: hurrengo urteko Animazio Plana lantzea, Hezkuntza Zentroen Kudeaketa plana lantzeko orientabideak eta sor daiteken beste hainbat gai.
  - Bideokonferentziak: Hiru bideokonferentzia urtean zehar, elkarrekin lantzeko gaiak eta obren inguruko kezkak jorratzeko.
- Zonaldea: Zonalde mailan (Errioxa-Zaragoza eta Euskal Herria) beste bilera batzuk egiteko aukera planteatu da, une bakoitzeko beharren arabera.

III. BILBO SEKTOREKO KONTSEILUA, TALDE ETA LANTALDEAK

2020-2021 IKASTURTEA

Atal honetan erabiltzen diren laburdurak honako hauek dira:

JCO	Juan Carlos Orús
IM	Itziar Muniozguren
FC	Fernando Casas
JP	Jesús Perigot
EV	Eusebio Villaescusa
SR	Sonia Redondo
JMC	Jose Mari Calvo
MG	Mikel García

La Salle
Bilbo Sektorea
Sector Bilbao

		Arduraduna
1 KONTSEILUA		
	1.1. SALLETAR HEZKUNTZA MISIORAKO KONTSEILUA (SHMK)	IM
3. TALDEAK		
Zuzendaritza	3.1 SEKTOREKO ANIMAZIO TALDEA (SAT)	IM
	3.2 GARAPEN TALDEA	IM
	3.3 SEKTOREKO PERTSONAK TALDEA	EV
	3.4 SEKTOREKO PASTORAL TALDEA	JP
	3.5 SEKTOREKO KUDEAKETA-ZUZENDARITZA TALDEA	IM
	3.6 SEKTOREKO PEDAGOGIA TALDEA	SR
	3.7 ELKARTE ZONALDEETAKO ANIMATZAILEEN TALDEA	JCO
	3.8 SALLETAR ELKARTEEN ZUZENDARIEN TALDEA	JCO
	3.9 HEZKUNTZA ZENTROEN ZUZENDARI TALDEA	IM
Pedagogia	3.10 EUSKAL HERRIKO HAUR-HEZKUNTZAKO KOORDINATZAILEEN TALDEA	SR
	3.11 ZARAGOZA-ERRIOXAKO HAUR-HEZKUNTZAKO KOORDINATZAILEEN TALDEA	SR
	3.12 EUSKAL HERRIKO LEHEN HEZKUNTZAKO KOORDINATZAILEEN TALDEA	SR
	3.13 ZARAGOZA-ERRIOXAKO LEHEN HEZKUNTZAKO KOORDINATZAILEEN TALDEA	SR
	3.14 EUSKAL HERRIKO BIGARREN HEZKUNTZAKO KOORDINATZAILEEN TALDEA	SR
	3.15 ZARAGOZA-ERRIOXAKO BIGARREN HEZKUNTZAKO KOORDINATZAILEEN TALDEA	SR
	3.16 EUSKAL HERRIKO BATXILERGO KOORDINATZAILEEN TALDEA	SR
	3.17 ZARAGOZA-ERRIOXAKO BATXILERGO KOORDINATZAILEEN TALDEA	SR
	3.18. ORIENTATZAILEEN TALDEA	SR
	3.19 HEZKUNTZA BEREZIKO GELEN ARDURADUNEN TALDEA	SR
	3.20 IRAKURKETA ERAGINKORRAREN ARDURADUNEN TALDEA	JMC
	3.21 SEIN GOGOETA TALDEA	SR
	3.22 LANBIDE HEZIKETA GOGOETA TALDEA	FC
	3.23 DATU-BASEAREN ARDURADUNEN TALDEA	FC
Pastorala	3.24 PASTORAL ODEZKARIEN TALDEA	JP
	3.25 HARAREN ARDURADUNEN TALDEA	JP
	3.26 BARNETASUNA GOGOETA TALDEA	JP
	3.27 AISIALDIKO ARDURADUNEN TALDEA	JP
	3.28 IZARTXO GOGOETA TALDEA	MG
	3.29 GODLYPLAYaren ARDURADUNEN TALDEA	JP
	3.30 JUBS (JUSTIZIA, BAKEA ETA SOLIDARITATEA) ARDURADUNEN TALDEA	JP
	3.31 GGKEen ARTEKO KOORDINAZIOA TALDEA	JP
	3.32 ZARAGOZA-ERRIOXAKO PROYDE DELEGATUEN TALDEA	JP
	3.33 PROYDE-PROEGA DELEGATUEN TALDEA	JMC

		Responsable
Identitatea	3.29 IDENTITATEAREN ARDURADUNEN TALDEA	EV
	3.30 BILBO SEKTOREKO ASOZIATUAK	EV
	3.31 KRISTAU ELKARTEETAKO ARDURADUNEN TALDEA	EV
	3.32 GURASO ELKATE LEHENDAKARIAK	IM
Kudeaketa eta komunikazioa	3.33 BALIABIDE TALDEA	FC
	3.34 ADMINISTRATZAILE TALDEA	FC
	3.35 TITULARREN TALDEA	FC
	3.36 SOLIDARITATE FUNTSA KUDEATZEKO TALDEA	FC
	3.37 SEKTOREKO KOMUNIKAZIO TALDEA	FC
	3.38 DBLO TALDEA	FC
	3.39 SEKTOREKO N_IKT TALDEA	FC
	3.40 SEKTOREKO Next_IKT TALDEA	FC

La Salle
Bilbo Sektorea
Sector Bilbao

IV- SEKTOREKO EGUTEGIA

2020-2021 IKASTURTEA

OHARRA: Egutegi honek 2020ko uztailaren 31 arte ezagunak ziren datak jasotzen ditu eta beraz ikasturtean zehar hainbat aldaketa gerta daiteke. Egutegiaren bertsiorik eguneratuena kontsultatzeko Sektoreko web orrian azaltzen den egutegia begiratu (www.lasalle.eus)

Arloa	Mota	Taldea/formazioa/...	Tokia	Hasiera	Amaiera
FeSI	Topaketa	Misio Eguna	San Asensio	26/06/2021	
FeSI	Topaketa	10-11-12 Zonaldeko Asoziatuak	San Asensio	13/11/2020	14/11/2020
FeSI	Topaketa	10-11-12 Zonaldeko Asoziatuak	San Asensio	12/03/2021	13/03/2021
FeSI	Topaketa	10-11-12 Zonaldeko Asoziatuak	San Asensio	21/05/2021	22/05/2021
FeSI	Topaketa	10-11-12 Zonaldeko Asoziatuak eta familiak	San Asensio	12/09/2020	
FeSI	Topaketa	Salletar hezitzaileen topaketa	San Asensio	21/11/2020	
FeSI	Topaketa	AZP topaketa	San Asensio	17/03/2021	
Pastoral	Topaketa	Familiekin Paskoa	San Asensio	1/04/2021	4/04/2021
Pastoral	Topaketa	Mendi taldeen topaketa	Zumarraga	27/09/2020	
Pastoral	Topaketa	Gazte Gaua	Donostia-Loiola	6/03/2021	7/03/2021
Pastoral	Topaketa	Jende Xumea topaketa	San Asensio	4/01/2021	
Pastoral	Topaketa	Izartxo topaketa	Beasain	3/10/2020	
Pastoral	Topaketa	Gazteen topaketa	San Asensio	26/03/2021	28/03/2021
Pastoral	Topaketa	Unibertsitarioen topaketa	San Asensio	12/02/2021	13/02/2021
Pastoral	Topaketa	Udako boluntarioak	San Asensio		
Pastoral	Topaketa	Udako boluntarioak	San Asensio		
Pastoral	Topaketa	Udako boluntarioak	San Asensio		
Pedagogia	Topaketa	V SEIN Proiektuen Azoka			
Zuzendaritza	Taldea	SHMK	San Asensio	5/11/2020	
Zuzendaritza	Taldea	SHMK	BKF	30/11/2020	
Zuzendaritza	Taldea	SHMK	San Asensio	1/02/2021	
Zuzendaritza	Taldea	SHMK	San Asensio	23/03/2021	
Zuzendaritza	Taldea	SHMK	San Asensio	28/05/2021	
Zuzendaritza	Taldea	Garapen Taldea	San Asensio	02/09/2020 (a)	3/09/2020
Zuzendaritza	Taldea	Garapen Taldea	San Asensio	10/12/2020	
Zuzendaritza	Taldea	Garapen Taldea	San Asensio	5/05/2021	6/05/2021
Zuzendaritza	Taldea	Zentroen Zuzendariak	San Asensio	11/09/2020	
Zuzendaritza	Taldea	Zentroen Zuzendariak	San Asensio	17/02/2021	18/02/2021
Zuzendaritza	Taldea	Zentroen Zuzendariak	San Asensio	10/06/2021	11/06/2021
Zuzendaritza	Taldea	Zentroen Zuzendariak	BKF	29/10/2020	
Zuzendaritza	Taldea	Zentroen Zuzendariak	BKF	11/12/2020	
Zuzendaritza	Taldea	Zentroen Zuzendariak	BKF	30/04/2021	
Zuzendaritza	Taldea	SAT	San Asensio	24/08/2020	26/08/2020
Zuzendaritza	Taldea	SAT	San Asensio	29/09/2020	
Zuzendaritza	Taldea	SAT	San Asensio	23/11/2020	
Zuzendaritza	Taldea	SAT	San Asensio	7/01/2021	
Zuzendaritza	Taldea	SAT	San Asensio	2/02/2021	
Zuzendaritza	Taldea	SAT	Zaragoza	15/03/2021	16/03/2021
Zuzendaritza	Taldea	SAT	San Asensio	26/04/2021	
Zuzendaritza	Taldea	SAT	Bilbao	13/05/2021	14/05/2021
Zuzendaritza	Taldea	SAT	San Asensio	14/06/2021	15/06/2021
Zuzendaritza	Taldea	SAT	San Asensio	12/07/2021	13/07/2021
FeSI	Taldea	Kristau elkarteen arduradunak	San Asensio	4/11/2020	
Kudeaketa	Taldea	Titularreak	Donostia	5/10/2020	
Kudeaketa	Taldea	Titularreak	Donostia	22/02/2021	
Kudeaketa	Taldea	Titularreak	Donostia	31/05/2021	
Kudeaketa	Taldea	Administratzaileak	San Asensio	7/12/2020	
Kudeaketa	Taldea	Administratzaileak	San Asensio	11/05/2020	
Kudeaketa	Taldea	Komunikazioa	San Asensio		
Kudeaketa	Taldea	DBLO-PRODAT	San Asensio	2/12/2020	
Kudeaketa	Taldea	N-IKT	San Asensio	30/09/2020	
Kudeaketa	Taldea	Lanbide Heziketa gogoeta	San Asensio		
Pastoral	Taldea	Pastoral Delegatuak	San Asensio	30/09/2020	
Pastoral	Taldea	Pastoral Delegatuak	San Asensio	23/02/2021	24/02/2021
Pastoral	Taldea	Pastoral Delegatuak	San Asensio	8/06/2021	
Pastoral	Taldea	Pastoral Delegatuak	BKF	24/11/2020	
Pastoral	Taldea	Pastoral Delegatuak	BKF	20/04/2021	
Pastoral	Taldea	PROEGA Delegatuak	BKF	5/10/2020	
Pastoral	Taldea	PROEGA Delegatuak	BKF	25/01/2021	

Arloa	Mota	Taldea/formazioa/...	Tokia	Hasiera	Amaiera
Pastoral	Taldea	PROEGA Delegatuak	BKF	26/04/2021	
Pastoral	Taldea	Izartxo taldea	Egoitza-BKF	22/09/2020	
Pastoral	Taldea	Izartxo taldea	Egoitza-BKF	15/12/2020	
Pastoral	Taldea	Izartxo taldea	Egoitza-BKF	3/02/2021	
Pastoral	Taldea	Izartxo taldea	Egoitza-BKF	2/03/2021	
Pastoral	Taldea	Izartxo taldea	Egoitza-BKF	25/05/2021	
Pastoral	Taldea	PROEGA Junta	Donostia	18/09/2020	
Pastoral	Taldea	PROEGA Junta	Donostia	16/12/2020	
Pastoral	Taldea	PROEGA Junta	Donostia	24/03/2021	
Pastoral	Taldea	PROEGA Junta	Donostia	22/06/2021	
Pastoral	Taldea	PROYDE Zaragoza	La Salle Santo Ángel	9/09/2020	
Pastoral	Taldea	PROYDE Zaragoza	La Salle Santo Ángel	21/10/2020	
Pastoral	Taldea	PROYDE Zaragoza	La Salle Santo Ángel	18/11/2020	
Pastoral	Taldea	PROYDE Zaragoza	La Salle Santo Ángel	16/12/2020	
Pastoral	Taldea	PROYDE Zaragoza	La Salle Santo Ángel	20/01/2021	
Pastoral	Taldea	PROYDE Zaragoza	La Salle Santo Ángel	10/02/2021	
Pastoral	Taldea	PROYDE Zaragoza	La Salle Santo Ángel	17/03/2021	
Pastoral	Taldea	PROYDE Zaragoza	La Salle Santo Ángel	14/04/2021	
Pastoral	Taldea	PROYDE Zaragoza	La Salle Santo Ángel	12/05/2021	
Pastoral	Taldea	PROYDE Zaragoza	La Salle Santo Ángel	16/06/2021	
Pastoral	Taldea	Aisialdiko arduadunak	San Asensio	6/10/2020	
Pastoral	Taldea	Aisialdiko arduadunak	Egoitza-BKF	3/02/2021	
Pastoral	Taldea	Aisialdiko arduadunak	San Asensio	1/06/2021	
Pedagogia	Taldea	Laguntza gelak	San Asensio	10/11/2020	
Pedagogia	Taldea	Laguntza gelak		22/01/2021	
Pedagogia	Taldea	Laguntza gelak		7/05/2021	
Pedagogia	Taldea	BATX Koordinatzaileak	Donostia	27/10/2020	
Pedagogia	Taldea	BATX Koordinatzaileak	Donostia	2/03/2021	
Pedagogia	Taldea	BATX Koordinatzaileak	Donostia	31/05/2021	
Pedagogia	Taldea	DBH koodinatzaileak	Donostia	26/10/2020	
Pedagogia	Taldea	DBH koodinatzaileak	Donostia	1/03/2021	
Pedagogia	Taldea	DBH koodinatzaileak	Donostia	1/06/2021	
Pedagogia	Taldea	EI-EP Koordinatzaileak	BKF	15/10/2020	
Pedagogia	Taldea	EI-EP Koordinatzaileak	BKF	18/11/2020	
Pedagogia	Taldea	EI-EP Koordinatzaileak	BKF	24/02/2021	
Pedagogia	Taldea	EI-EP Koordinatzaileak	BKF	10/05/2021	
Pedagogia	Taldea	ESO-BACH Koordinatzaileak	BKF	28/10/2020	
Pedagogia	Taldea	ESO-BACH Koordinatzaileak	BKF	3/03/2021	
Pedagogia	Taldea	ESO-BACH Koordinatzaileak	BKF	2/06/2021	
Pedagogia	Taldea	HH Koordinatzaileak	Donostia	13/10/2020	
Pedagogia	Taldea	HH Koordinatzaileak	Donostia	17/11/2020	
Pedagogia	Taldea	HH Koordinatzaileak	Donostia	22/02/2021	
Pedagogia	Taldea	HH Koordinatzaileak	Donostia	4/05/2021	
Pedagogia	Taldea	LH Koordinatzaileak	Donostia	14/10/2020	
Pedagogia	Taldea	LH Koordinatzaileak	Donostia	16/11/2020	
Pedagogia	Taldea	LH Koordinatzaileak	Donostia	23/02/2021	
Pedagogia	Taldea	LH Koordinatzaileak	Donostia	3/05/2021	
Pedagogia	Taldea	SEIN gogoeta	BKF	3/11/2020	
Pedagogia	Taldea	Formatzaile transferentzian	San Asensio	18/01/2021	
Pedagogia	Taldea	Formatzaile transferentzian	San Asensio	25/03/2021	
Pedagogia	Taldea	Formatzaile transferentzian	BKF	15/04/2021	
Pedagogia	Taldea	Formatzaile transferentzian	San Asensio	27/05/2021	
Pedagogia	Taldea	Formatzaile transferentzian	BKF	17/06/2021	
Pedagogia	Taldea	LH irakurketa eraginkorra			
Pedagogia	Taldea	Orientatzaileak eta laguntza gelak	San Asensio	25/02/2021	
Zuzendaritza	Evaluazioa	Evaluazio Instituzionala Sestaon		9/11/2020	
Zuzendaritza	Evaluazioa	Evaluazio Instituzionala Montemolin		26/11/2020	
Zuzendaritza	Evaluazioa	Evaluazio Instituzionala Irunen		17/11/2020	
Zuzendaritza	Evaluazioa	Evaluazio Instituzionala Alfaron		24/11/2020	

Arloa	Mota	Taldea/formazioa/...	Tokia	Hasiera	Amaiera
Zuzendaritza	Evaluazioa	Evaluazio Instituzionala San Asension		24/11/20 (G)	
Zuzendaritza	Evaluazioa	Evaluazio Instituzionala Andoainen		19/11/2020	
Zuzendaritza	Formazioa	Zuzendari berriak Formazioa		Ez dago	
FeSI	Formazioa	KIMU	Biz-LR-Zgz-Gip Zonaldeak	17/10/2020	
FeSI	Formazioa	+15 Formazioa	BKF	15/10/2020	
FeSI	Formazioa	+15 Formazioa	BKF	12/11/2020	
FeSI	Formazioa	+15 Formazioa	Biz-LR-Zgz-Gip Zonaldeak	14/01/2021	
FeSI	Formazioa	+15 Formazioa	Biz-LR-Zgz-Gip Zonaldeak	11/02/2021	
FeSI	Formazioa	+15 Formazioa	San Asensio	11/03/2021	12/03/2021
FeSI	Formazioa	Zuzendaritzakide berriak	San Asensio	28/09/2020	
FeSI	Formazioa	Zuzendaritzakideeen fromazioa		1/07/2021	
Pastoral	Formazioa	Godly Play formazioa	Irun	5/10/2020	7/10/2020
Pastoral	Formazioa	GP atezainak formazioa	Irun	9/10/2020	
Pastoral	Formazioa	Godly Play formazioa	Irun	30/11/2020	2/12/2020
Pastoral	Formazioa	GP atezainak formazioa	Irun	3/12/2020	
Pastoral	Formazioa	Godly Play formazioa	Irun	3/03/2021	5/03/2021
Pastoral	Formazioa	GP atezainak formazioa	Irun	2/03/2021	
Pastoral	Formazioa	Godly Play formazioa	Irun	5/05/2021	7/05/2021
Pastoral	Formazioa	GP atezainak formazioa	Irun	4/05/2021	
Pastoral	Formazioa	Aisialdiko monitoreen formazioa	Irun	4/09/2020	6/09/2020
Pedagogia	Formazioa	ITB formazioa DBH 1.1	San Asensio	25/01/2021	26/01/2021
Pedagogia	Formazioa	ITB formazioa DBH 1.2	San Asensio	27/01/2021	28/01/2021
Pedagogia	Formazioa	ITB formazioa DBH 2.1	San Asensio	19/04/2021	20/04/2021
Pedagogia	Formazioa	ITB formazioa DBH 2.2	San Asensio	21/04/2021	22/04/2021
Pedagogia	Formazioa	ITB formazioa ESO (ER-ZGZ)	Zaragoza	29/06/2021	30/06/2021
Pedagogia	Formazioa	ITB formazioa DBH (EH)	País Vasco	5/07/2021	6/07/2021
Pedagogia	Formazioa	ITB formazioa HH/LH (PV)	País Vasco	22/06/2021	23/06/2021
Pedagogia	Formazioa	ITB formazioa EI/EP (ER-ZGZ)	Zaragoza	24/06/2021	25/06/2021

V- BILBO SEKTOREKO SALLETAR HEZKUNTZA MISIOAREN URTEKO PLANA

2020-2021 IKASTURTEA

Atal honetan erabiltzen diren laburdurak honako hauek dira:

HEL.	Helburua
JI.	Jarduera Ildoa
J.	Barrutiko Jarduera
BJ.	Bilbo Sektoreko Jarduera
SAT	Sektoreko Animazio Taldea
ZUZ	Sarearen Zuzendaritza
HMD	Hezkuntza Misiorako Delegatua
PMP	Pastoraltza Misiorako Delegatua
FeSID	Formaio eta Salletar Identitaterako Delegatua
G	Gerentea
HJABG	Harrera, Jarraipena eta aconpainamenduarako Barrutiko Gida
ITBTE	ITB Talde Eragilea
SHMA	Salletar Hezkuntza Misio Asamblada
ITB	Ikaskuntzarako Testuinguru Berria

PERTSONAK

						SAT	Obra
FORMAZIO INSTITUZIONALA - IDENTITATEA - BOKAZIOA							
3	**HEL.03 (F)**	**Segurtatu identitaterako formazio-programek lagundu egiten dituztela bokazio-pertsonalizazio eta elkarte-integrazio prozesuak.**					
3.1	JI.03.01 (F)	Formazio-programen esperientzi dimentsioa areagotuko da, salletar nortasun-ezaugarrien integrazio pertsonala lagunduko duena (fedea, elkarte-asoziazioa eta premia handien dutenen aldeko zerbitzua).	B-S-O	J.03.01.01	Formazio eta Salletar Identitate Barruti Batzordeak, Pastoralekoekin lankidetzan, laguntzak eskainiko ditu hezitzaileek "Izan +" egitasmoan sar daitezen.		
				J.03.01.02	Formazio eta Salletar Identitate Barruti Batzordeak esperientzien zerrenda bat osatuko du zeinetan gara daitekeen salletar nortasun-ezaugarrien integrazio pertsonal prozesua.		
				BJ.03.01.01	ZTak, SATaren laguntzaz, Obrarako Formazio Plana burutuko du eta azarorako Formazio eta Salletar Identitaterako Delegatuari helaraziko dio.	FeSID	X
				BJ.03.01.03	ZTak formazio-plan bat burutuko du, urtean zehar, hurrengo hiru urtetarako baliozkoa, eta Formazio eta Salletar Identitaterako Delegatuarekin komentatuko du.	FeSID	X
				BJ.03.01.04	Sektoreko Pastoral Taldeak Obrei pistak eskainiko dizkie hezitzaileek "Izan +" proiektuan sar daitezen.	PMD	
3.2	JI.03.02 (F)	Elkarte-asoziazio dimentsioaren garapena sustatuko da obretan egiten diren jardueretan, bizitzan, fedean eta misioa partekatzeko orduan.	O	BJ.03.02.01	ZTak, SATaren laguntzaz, bizitza, fedea eta misioa partekatzea erraztuko duten jarduerak prestatu eta garatuko ditu.	FeSID	X
				BJ.03.02.02	Pastoral Taldeak klaustroarekin, kristau elkartearekin... ospakizunak egin ahal izateko baliabideak eskainiko dizkie Obrei, Godly Play metodologia barne.	PMD	
3.3	JI.03.03 (F)	Hezkuntza-erakundeetan 15 urte baino gehiago daramatzaten hezitzaileen formazioa eta jarraipena segurtatu eta finkatuko da.	B-S-O	J.03.03.01	Formazio eta Salletar Identitate Barruti Batzordeak formazio- eta laguntasun-proposamenak eskainiko dizkie gure obretan 15 urte baino gehiago daramatzaten hezitzaileei, gaur egungo identitate formazio-ibilbideak edo antzekoak aprobetxatuz.		
				BJ.03.03.01	Zuzendariak, Formazio eta Salletar Identitaterako Taldearekin batera, 15 urte baino gehiago daramatzaten pertsonak eta formazio instituzional trinko batean parte hartu ez dutenak identifikatuko ditu, formazio eta segimendu proposamenak eskaintzeko.	FeSID	X
				BJ.03.03.02	SATek, ZTarekin batera, formazio-plan bat burutuko du, fase ezberdinetan egingo diren topaketak begibistan izanik: 1. fasea: online. 2. fasea: zonaldeka, aurrez aurreko. 3. fasea: San Asension. (Agian bi egunekoa, gaua eta afaria barne)	FeSID	X
				J.03.03.02	Formazio eta Salletar Identitaterako Delegatuak "Harrera, segimendu eta laguntasunerako Barruti Gidan" sartuko du gure obretan 15 urte baino gehiago daramatzatenentzako arreta-proposamen bat.		
4	**HEL.04 (F)**	**Salletar identitatea sendotu elkarteen sarean bezala hezkuntza sarean, testigutzaren, formazioaren, animazioaren eta laguntasunaren bitartez.**					
4.1	JI.04.01 (F)	Bermatuko da, formazio-programetan parte hartzen dutenek aurretiko motibazioa eta kontzientziazioa edukitzea; eta halaber jarraipenaren eta laguntasunaren eskaintza, prozesu horiek bizitzerakoan eta bizi ondoren "Harrera, jarraipen eta laguntasunerako barruti-gida" dokumentuko irizpide eta orientabideen arabera.	S-O	BJ.04.01.01	Zuzendariak eta Tokiko Identitate Arduradunak, Formazio eta Salletar Identitaterako Taldearekin batera, formazio-jarduerez informatu eta motibatuko ditu partaideak eta prozesua egingo dute GDASAren irizpideen arabera.	FeSID	X
